


ARGIAK ILUNARI GAIN HARTZEAN

Beñat Sarasola

elkarri irakurriz



 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Beñat Sarasola

Argiak ilunari gain hartzean

azala:
Idoia Beratarbide



elkarri irakurriz

Moduluan begiratzeko esan dit dendari uniformedunak, handik deskargatu dezakedala liburua. Harriturik begiratu nau, begiak arranpalo, urteak balira bezala halakorik galdetzen ez ziotela. Dena esatera, hala baita, ziur aski. Barkatu, esatera nindoan, antigoaleko tipo bat nauzu, liburuei liburu eta fitxategiei fitxategi deitzen dien horietakoa, eta galdu egiten naiz leku berri hauetan.

Ez dira hain berriak, esango lidake alabak, badira hamabost urte gutxienez Donostian lehena jarri zutela, ni jaio gabea nintzen. Saiatu izan naiz denboraren kontzientzia erlatiboaz azalpenak ematen baina berehala egin izan dit keinu baztertzailerik bat, eskumuturra goitik behera astinduz, nire matrakarekin jarraitu ez dezadan eskatuz. E, tio, ez niri kontatu XX. mendeko gauzak (nerau XX. mendea ezagutzera, iritsi, ez iritsiagatik).

Bere ozarkeriak kontrakoa aditzera eman balezake ere, neska argia da Lia, etxeko argiena, sarritan Alazneri esan izan dion bezala, bere amorraziorako; hura ere, ni ez bezala, bestalde, klaseko lehena izan baita beti: ez du alferrik lan egiten egun Ibermática-ko goi postuetan. Alabaren azkartasunaren baitan dago bere irakurzaletasuna ere, bere adinekoen artean bitxikeria bat duarik gabe, baina, besteak beste, amaren enpeinuagatik erdietsi duena, eta nire etsiaren kontra; izan ere, zaharrieriak jotako aitaren rola osoro nire gain hartuta, urteak eraman ditut Alazneri esaten, uztan bakean, orain horrela zatozan, mundu berrirako ez ditene behar, hori dun gure gurasoek eskolan oraindik latina ikasi zitenan bezalaxe, onartu ezan, beste mundu batera goazan.

Opariarena ere Alazneren kontua izan da, noski. Zerbait erosi behar niola urtebetetzerako eta erosi behar niola, ez dut besterik izan etxean azken asteon, baina ez nekiela zer arraio erosi, jada Lia pertsona independente izateko bidean izaki, nerabeen mundu horretan – geroz eta lehenago hasten dena, bide batez– galdu egiten naizela. Errazagoa zen lehen, doike. Lehen eta aspaldian. Harekin hain ondo moldatzeko galdu samar ikusten haut ba, gaiztoz bota zidan Alaznek bart. Sekula leporatu ez diodan arren, ezagun baitu nirekiko bekaitza, Liarekin sano ondo moldatzen naizelako, leun joaten direlako gure artekoak, haien artekoak burrunbatsuak eta espantuzkoak izaten diren bitartean. Ez naiz sekula ausartu, baina, berdinak-zareteka hastera, ondo dakidalako alferrik ez ezik kalterako izango litzatekeela; nik, ordea, kiroltasunez, egonarriz eta etsimenduz hartu izan dut aita

enrollatua izatearen akusazioa. Gratuitoa? Baietz esango nuke, nire borondatez behintzat, ez delako sekula halakorik egon, ezpada alaba albait hoberen ulertzeko kuriositatea, eta nire burua beraren aurrean erridikuluan geratzeko beldurrik eza, zeina, bide batez, Alaznek ezin duen eta ezingo duen sekula gaintik kendu. Horrek egiten du, egitekotan, Lia eta nire artekoa gozo joatea; beti izan dudala izan nahi duena eta dena arazo handirik gabe onartzeko dohaina. Eta bere kontuetan gehiegi ez sartzekoa ere bai, noski, Alaznek inoiz nire parteko utzikeria legez ulertu izan duena; egia aitortzera, haren interbentzionismoagatik ez balitz segurua da Lia ez litzatekeela liburu artean ibiliko. Zein liburu arraio erosi, bada, Alaznek esan zidan ere. Erosiok Pandemon, duela urte batzuetakoa duk, mende hasiera samarrekoa, zientzia-fikzioaren boomaren garaikoa.

Zu ere Pandemonekin galdetu dit dendariak liburuak jasotzera joan naizenean, ez dago besterik azken boladan. Oparitarako dela esan niezaiokeen, baina zertarako bi orduan, laster harrapatuko lidake alibia. Niri ere kuriositatea piztu baitzait liburu madarikatu horrekin; aspaldi ezer irakurri gabea naiz, gainera, eta besterik ezean alabarekin hitz-aspertua egiteko baliatu ahal izango dut.

Argiak ilunari gain hartu eta eguna abiatu zenean, Eastio hiriko inork ez zuen espero ordu gutxiren buruan denak beren etxeetan geratu beharko zirenik. Entzunak zituzten zurrumurruak, azken boladan ez zen besterik albistegietan, baina gehiengoak zentzu komunari egiten zion dei: Yun hirian posible izan zen, bai, dena zigilatzea, baina Eastio besterik zen. Hiriaren antolamenduak bezala herritarren izaera eta ohiturek ez zuten zerikusirik Yunekoekin, eta horrenbestez, hiritarrek beren buruei esaten zieten zen kontua ez zela izurriterari aurre egitea edo ez, baizik eta nola aurre egin.

Baina arratseko albistegian gobernadoreak hitza hartu eta tonu sakonez, egoeraren larriaz eta ohiz kanpokoaz gaztigatu zuenerako, denek bazekiten zetorrena ez zela samurra izango.

–Egoera ezohikoek erantzun ezohikoak eskatzen dituzte, eta dakizuenez, guztion batasuna ezinbestekoa dugu izurritearen kontrako gudua irabazteko. Horregatik, prentsaurreko honen bidez iragarri nahi dizuet datozen hamabost egunetan hiritarrak soilik betebeharrak ezinbestekoetarako atera ahalko direla etxetik. Honakoak dira sail horretan sartzen diren egitekoak: elikagai eta botiken erosketa, osasun zerbitzuetarako bidaiak, haur, nagusi edo mendekotasunen bat duten pertsonen zaintzarako mugimenduak, finantza edo aseguru erakundeetarako mugimenduak, edo oro har, premia-premiazko egin beharretarakoak.

Maryri kosta egiten zitzaion oraindik entzundakoa sinestea eta biharamuna nolakoa izango ote zen galdetzen zion bere buruari: jendea kalera aterako ote zen ezer gertatuko ez balitz bezala? Egoeraren nahaste-borrastea profitatuz, arpilatzeak egongo ote ziren denda abandonatuetan? Kapaz izango ote zen jendea beren etxeetan geratzeko hainbeste orduz? Auzotik paseo txiki bat ere eman gabe?

Hurrengo egunean, bada, harrigarria egin zitzaion jendearen esanekotasuna. Eastion fama zuten autoritatearen ezein formekiko uzkur izatekoa. Araudi, legedi eta ordenamenduen zirrikituak bilatzen iaioak omen ziren, kontestatarioak zirela esan ohi zioten atzerritarrari herriaren idiosinkrasiaren inguruan galde egiten zietenean, baina kontua da garaia iritsi zenean, aspaldi handiko agindu zorrotz eta estuena jaso zutenean, denek ia, aho batez, men egin zietela gobernadorearen aginduei. Etxean geratu ziren, Maryren harridurarako.

Baina topikoak bezain faltsuak izaten dira antitopikoak, eta egun gutxiren buruan hasi ziren albistegietan urliaren arau hausteaz hitz egiten, sandiak ondo merezitako isunaz, lagundiaren portaera osotoro gizabiderik gabeaz. Ez ziren falta horretarako balkoietako salatariak, mugikorra fusila nola lege hauslea berehalakoan akusatzeko. Gizakiak gehiago gozaten baitu besteren gaitzetik norbere zorionetik baino. Eta halaxe hasi ziren gero eta

ozenago ingurukoaren marmarrak: desastre hutsa zela dena, halakoaren jokabidea ez ezik gobernu zentralaren neurriak, herrialdeko autonomiaren paralisia, eskualdeko gobernutxoaren politika zentzugabeak, azpieskualdeko gobernuaren txoagoaren neurri estranbotikoak, udalaren... Eta gobernariaren kontrako herrarekin aski ez eta adituen kontrakoak hasi ziren entzuten hitzetik hortzera: nork eman dizkiete tituluak ezgai hauei? Adituak? Ustezko adituak izango dira izatekotan.

Lanetik bueltan zetorrela James auzoarekin topo egin eta halaxe esan zion distantziara: nolatan ez dute kontuan hartu lehenengo astean eztarrian kokatzen dela birusa, ezarian joaten dela zabaltzen, gaitza isil hedatzen dela gorputzean zehar, baina ordurako kutsagarria dela, eta garbi esan duela halako ikerketak, harako ebidentziek neurriak lehenago hartu behar zirela, gauza bat dela latentzia-garaia eta beste bat inkubazio garaia, ez direla nahasi behar...

–Aizu, bihar nahi baduzu etor zaitezke nirekin ospitalera, nire nagusiek harreman zuzena dute osasun kontseilariarekin.

–A, egia, ahaztua nuen, ospitalean zabilzala lanean.

–Zu zer moduz, yoga klaseak online ematen, ezta? –galdetu zion azken egunetan hormaz bestaldera entzuten zuen musika akuosoarekin akordatu zelarik.

Izan ere, etxeko tarte luzeak berehala joan ziren betetzen gero eta aisialdi-aukera aberats bezain harrigarriagoekin. Musikari, idazle, poeta, funanbulista, titiritero eta enparauak bakoitzak berea eskaintzeko prest ziren musutruk, horietako batek Instagrameko zuzeneko batean esan zuen bezala “itxialdi anker hau samurragoa egin dakizuen”. Eskuzabaltasun hori hurkoarekiko begirunea zen, ez besterik, zeren, instagramerraren hitzetan “bakoitzak hobeki egiten dakien hori eskaini behar du, horretan denok gaude ados, eta nik zera esan nion nire buruari, nik zer eskain diezaioket gizarteari egoera latz honetan? Nire musika”.

Dena esatera, Maryk nekez zuen halakoen eskaintza paregabeaz gozatzeko aukerarik, lanaldi amaigabeetan kateatua, leher eginda ailegutzen zen gauero etxera, egun osoan ohatilak alde batetik bestera mugitzen ibili ondoren. Lanaldia bikoiztu zioten, eta ordainetan, arratsero jendearen balkoietako txalo zaparrada jasotzen zuenetako bat zen, nahiz eta, normalean, mediku eta erizainak aipatzen zituzten andariak edo garbitzaileak bainoago. Esker ugari jaso zituen ere mezu bidez, “eskerrik asko egiten ari zareten guztiagatik”, “zuek zarete guda ezezagun honetako heroiak” “eskerrak bihotzez lehen lerroan jarraitzeagatik” eta halakoak, zeinak, dudarik gabe, bihotz altxagarriak zitzaizkion, batez ere gauetako txandan ehun kilotik gorako morroia zeraman ohatila –egun horretako berrogeigarren bultzaldia, demagun– mugitzeari ekin behar zionean. Egunak igaro ahala, txaloak behekitzen joan ziren, hori ere egia da, baina berak berdin sumatzen zuen herriaren hatsa bizkarrean, Tom Simpsonen Mont Ventouxen gora errepide bazterreko zaleen animoak sentitu zituen gisa berean. Honenbestez, Maryk ezin izaten zuen online kultur eskaintza paregabeaz gozatu, eta bere buruari etsipen puntu batez esaten zion sikiera txaloak zituela.

Hirugarren asterako, ospitaleko arlo buruak bilera motz batera deitu zituen eta beraien buruak ere zaintzeko premiaz gaztigatu. Ezin zietela lanaldia murriztu, noski, osasun zerbitzuak kolapsoaren hari-harian zeudelako, baina hain justu horregatik onik behar zituztela, eta ohiko segurtasun neurriak hartzeaz gain –eskularruak, maskarak, jantzi bereziak eta abar–, osasun onerako hiru giltzarriak bete behar zituztela beraien egunerokoan, alegia, kalitatezko loaldiak, elikagai naturalak eta ariketa fisikoa. Egiazki, ordura arte jaramon gutxi egin ziren hiruei, baina bereziki gutxi ariketa fisikoa egiteari, areago lanean horretatik aski zuelako. Halere, arlo buruak lanean egiten zuten jarduera fisikoaz kanpoko ariketa mota ezberdin bat egiteko komenientzia azpimarratu zien, eta halaxe bururatu zitzaion kaxa batean egongelako armairu handiaren sakonean gordeta zuen bideo-kontsola –zeina anaiak erregalatu zion bi urte atzera, Jessica-rekin harremanaren haustura leunagoa gertatu zekion– hartzea, ariketa egiteko joko batekin etorri zitzaiola akordatzen zelako.

Halaxe hasi zen, libre zituen ordu eskas horietan, bideo-kontsolako txorimaloaren mugimenduei hala-moduz jarraika, hasieran kostata samarrean, pixkanaka gero eta

errazago. Txorimaloak besoak mugitzen zituela erroten moduan, Maryk ere, telebistaren aurrean paraturik, halatsu egiten zuen; txorimaloa tokitik mugitu gabe belaunak igotzen hasten zela gero eta azkarrago, Mary ez zen gutxiago. Pertsianak jaisten zituen inork ikus ez zezan, eta ahalik eta isilen aritzen ahalegintzen zen, baina jokoan zenbat eta aurrerago joan, hainbat exigenteagoak ziren ariketak, eta ia ezinezkoa egiten zitzaion zaratarik ez ateratzea. Berak ondoko yogiaren musika akuosoa entzuten bazuen, zer ez zuen entzungo behean bizi zen matrimonio bereziak, alimaleko jauziei eta bestelakoei ekiten zienean?

Horixe etorri zitzaion burura, egun batez, goizean goiz lanera joatekotan zela autoaren lau gurpilak zulatuak aurkitu zituenean. Ez zen dudarik, norbaiten borondate makurrak egindako zerbait zen, bezperan autoa osorik parkinatu baitzuen eta lau gurpilak baitzeuden zulaturik halako moldez non autoa ohi baino beherago baitzegoen, zimelduta bezala. Ez zituen zalantzak uxatu zitzaizkion pneumatiko bakoitzean ikusi zuen zarratu nabarmenak (laban edo aizto batez eginak, dudarik gabe) bistaratu zituenean. Taxi bat hartu behar izan zuen, beraz, eta autoarekikoak gerorako utzi, alarma egoeran ezin baitzuen inolaz ere bere lanpostua utzi; koldarrak baino ez dira batailaren erdian lubakitik eskapo egiten dutenak.

Beheko matrimonioa zen bere susmagarri nagusia. Garajerako sarbidea bere etxebizitza blokekoek baino ez zuten, oso arraroa litzateke norbait kanpotik sartu izana. Gainera, mudatu berritan kexatu zitzaizkion, zabaldua utzi zuen arropak tantak isurtzen omen zituela eta. Besteren batena izan behar zuela pentsatu zuen, berak zentrifugazio potenteena erabiltzen zuelako, baina haien begi gehiegi irekiei eta hizketa modu arranditsuari erreparatuta, eta ez diskutitzearren, baietz esan zien, kontu handiagoz zabalduko zuela arropa aurrerantzean.

Egun horretan eta hurrengoan, bada, atsedeen hartu zuen txorimaloari jarraika aritzetik. Luze gabe, ordea, bigarren eraso bat izan zuen autoak. Oraingoan espraiz zikindu zioten aurreko beira mezu ezin argiago batekin: “Urde kutsagarria!”. Kontuaz jada aski amorraturik, egun hartan inoiz baino jauzi handiagoak egin zituen txorimaloari segika.

Polizari deitu eta ur sakonagoetan sartu baino lehen, lursailaren administrariarekin hitz egitea deliberatu zuen. Bere harridurarako, bazuen erasoen berri, eta arduratuta hitz egin beharrean, auzokiko enpatiaz hitz egin zion. Erasoak paliatiborik gabe kondenatzen zituela esan zion hasteko, makulu-hitz baten konbikzio ustel berberaz, baina segidan azpimarratu zion ohartu behar zuela auzoak –ez gutxi, zehaztu zion– kezkatuak zeudela, ulertzen zutela bere lana zela andari izatea, baina era berean ulertu behar zuela berak eraikinean jende nagusi, ume eta mota askotariko arrisku-taldeetan sartzen ziren hainbat lagun bizi zela. Bere egoera ulergarria izan zitekeela ikuspuntu pertsonal batetik, baina komunitatearen izenean, auzotar askok eskatzen ziotela lanari uko egin ziezaion, edo, bestela, beste bizitokiren bat bila zezan krisiak iraun bitartean.

–Zure interesak ezin dira bizilagun guztion gainera jarri.

–Nola guztion? –izan ere, administraria ez zen bloke horretan bizi, hiriko bizitegi-auzo batean baizik.

–Hitz egiteko modu bat da. Badakizu, asko inplikitzen naiz nire lanean.

Asaldaturik utzi zuen solasaldiak, baina ez zegoen luzamendu askotarako, lanetik etxera eta etxetik lanera, ozta-ozta konpon zezakeen autoaren kaka-nahastea aseguruaren laguntzari (eta, batez ere, oztopoei) esker. Eta halaxe jarraitu zuen, bada, denborak buruhaustek konponduko zituelako esperantza xaloaz.

Berandu gabe ailegatu behar zen ailegatu beharrekoa, baina, eta administrariarekin hitz egin eta egun gutxira topatu zituen bebarruan lau auzokide, hiru bere blokekoak eta beste bat parekokoak. Bere txundidurarako, ez zegoen beheko matrimoniokoen arrastorik; aldiz, bere blokekoetako bat James zen, yogia. Mehatxuz eta irainez hartu zuten, eta handik hanka egiten ahalegindu zenean bultzada bat eman zion lehenik batek, eta amorraren amorruez erreakzionatu zuenean bultzatu zionari aurre eginez, lauen artean heldu, hormaren kontra eraman eta gogor estutu zuten. Argia izan zen ospa egin aurretik helarazi zioten mezua: “Datorren asterako auzotik kanpo ikusi nahi haugu”.

Ez zuen erabakirik hartu beharrik, pasatutakoak pasatuta, ez zegoen balentria heroikoak egiteko moduan. Oporretarako maleta handiena hartu, goraino bete, eta datorren asteari itxaron gabe, biharamunean egin zuen hanka ahizparenera. Lau ziren haiek, baina etxea handia izaki, gela libre bat zuten, eta txikia izanagatik eta kanporako leihorik gabekoa, horrekin ondo moldatuko zela adierazi zien. Gezurra esan zien, ospitaletik askoz ere gertuago zegoela euren etxea eta larrialdia bukatu artean nahiago zuela handik gertu ibili, batzuetan ospitaletik deitzen ziotelako ospitaleratu-olde bat iritsi zelako eta errefortzuak behar zituztelako.

Egoera ahalik eta lasterren baretuko zen esperantza zuen, gehienez ere hilabeteko kontua-edo, eta gero bere etxera itzultzekotan zen, auzoek ordurako beste kezka-gairen bat edukiko zutelakoan.

Larrialdi-egoera, ordea, uste baino gehiago luzatu zen, eta ahizparenean zegoela hilabete konplitzera zihoanean gertatu zitzaion, ospitalean. Egun batzuk ziren kutsatuen kurba jaisten hasi zela, baina azkeneko hiru egunetan geldialdia iritsi zen: ospitalera kutsatuak eta kutsatuak iristen jarraitzen zuten. Zortzietan amaituko zuen bere txanda, baina ordu laurden lehenago gaixo berri bat transferitu zioten larrialdietatik. Ziztuan bi solairu jaitsi eta zegokion ohatilarantz joan zenean, berehala jabetu zen morroiaren ile sarri kaotikoak eta azalaren kolore laranja hori bakarrarenak baizik ezin zirela izan, Jamesenak.

–Eraman ezazu ziztuan ZIUra, oxigeno saturazio oso baxuarekin iritsi da.

Halaxe egin zuen, zer bestela. Ohatila bultzatu zuen, parez pare jarrita Jamesi begiratzen ziola; berak soa itzuli zion oxigeno-maskararen gainetik. Profesionaltasunak horixe exijitzen ziola pentsatuta, Maryk ere ez zion ezer esan; izanak izan, berari ohatilari bultzatzea zegokiola, eta hobe isilik, ahoa irekitzen bazuen ez zelako onerako izango. Ez zuen atzera tipoa ikusi ospitalean, harik eta ordutik pare bat atera alta jaso zuela jakin zuen arte.

Pandemia ahultzen joan zen ezarian, eta horrekin batera, konfinamendu neurriak arintzen. Ez zuen ahizpen etxea uzteko gogorik, baina kontziente zen, era berean, ezin

zuela bere etxerako buelta sobera atzeratu. Tabernak eta jatetxeak ireki zituzten egunean itzultzea erabaki zuen; auzo gehienak kalean egongo zirela espero zuen eta errazagoa egingo zitzaioela zuhurki itzultzea. Halaxe izan zen: bebarruan sartu eta arrapaladan hartu zuen igogailua etxerako, eta eskailburuan ere ez zuen beste inorekin topo egin. Lehen roundean bizirik atera zen.

Mugiroa, ordea, biharamunean iritsi zitzaion. Ailegatu da erosketetarako orgatxoarekin bueltan, atezuan, eta bekoz beko topatu du pankarta kale kantoia hartu eta bebarrurantz abiatzean, lehenengo pisukoen leihoetan alderik alde: “Ongi etorri, Mary!”. Bizilagun guztiak irten dira batera balkoietara, sinkronizazio handiz, eta aurreko asteetan medikuei oro har txalo jo zieten baino are indar handiagoaz jo diote txalo orain pertsona konkretu bati, Maryri. Gora begira geratu da, harri eta belarri, areago denak isildu eta Jamesi begira jarri direnean. Emozio betez hitz egin dio bizilagunak.

–Hemen bildu gara denok, zuri, Mary, eskerrik beroenak emateko. Eta bereziki nik, hemengo denek ondo dakitenez, bizitza salbatu baitidazu. Zer gertatuko zatekeen larrialdietatik ZIUrako bide horretan berandutu izan bazina? Zer, nagikeriaz hartu izan baninduzu eta zure lanak eskatzen duen temarik gabe eraman izan baninduzu? – hunkiturik, dardar egin zion ahotsak segundu batzuez–. Aurretik ere besteekiko elkartasun zantzu izugarriak erakutsi zenituen gu guztiongatik krisialdia amaitu arte etxea uzteko prestutasuna izan zenuenean –txalo eztanda bat entzun zen berriz ere, baita kalean bere inguruan pixkanaka pilatzen ari zen jendearen partetik (tartean administraria) ere–. Gu guztion alde egin duzunagatik esker ona adierazteko hitzik ez dugu. Zuoi –esan zuen 4. Bko eta 5. Dko gazteei begira– historiako heroi asko irakatsiko dizkizute ikastolan, baina entzun ezazue hau eta gogoan hartu ezazue betiko: benetako heroiak herri xeheko jende anonimoa dira: hemen duzue adibiderik onena. Mary, Mary bai dela heroietan heroiena, harrokeriarik gabe, isilka, umiltasun osoz bere lana egitera dedikatu dena; distirarik gabeko lana askoren ustez, lan ezkutua, lan gutxietsia, baina jakin dezala jende guztiak beragatik ez balitz ni ez nintzakeela hemen izango zuokin guztiokin, ez nuela zuen konpainia eder hau edukitzeko aukerarik izango. Eta bestela, esker txarreko gizarte honetan, beste inork omenaldirik egingo ez dizunez –beregantantz biratu zen berriro– har

ezazu zure bizilagunen omenaldi xume hau, gure asmo onenekin egin eta esan dezagun ozen biba Mary, biba eta biba Mary. Maite zaitugu!

Ordura arteko txalo zaparrada ozenena etorri zen segidan, eta zer egin ongi ez zekiela, banan-banan hasi zen bizilagun bakoitzari begira, esker oneko keinu bana entseatuz; estimatzen zuela, noski, ongi etorria. Luze gabe, James bebarrutik agertu zen eta zuzenean joan zitzaion. Ia erreakzionatzeko tarterik gabe, besarkada estu batean bildu zuen, txaloak oihu bihurtzen ziren bitartean: “Biba Mary! Biba eta biba! Biba zu! Biba zuek! Biba urlia! Biba sandia! Biba lagundia!”. Alde batera eta bestera begiratu, irribarre itxi bat atera zitzaion, ordura arteko lehenengoa, eta banan-banan hasi zen inguratzen zuen oldeko kideak ikusten: lursailaren administratzailea ez ezik, beheko solairuko matrimonio berezia –lehen aldiz bozkario betean–, Mary hormaren kontra estutu zuten beste bi bizilagunak, eta pareko blokeko bestea –hura ere han zen–, eta beste asko seguru han zirela: autoaren gurpilak zulatu zituena, autoan pintada egin ziona, administrariari kexatu zitzaizkienak. Denak aho batez, hunkiturik, ospatu zuten Maryren itzulera eta berak, instant batez, begiak malkotzen sentitu zituen. Besarkada itzuli zion Jamesi besaburuak ondo estutuz, eta biratu eta denei begira, besoa luzatu zuen, eskerrik asko esanez behin, eskerrik asko, bigarrenez, eskerrik asko, hirugarrenez ere bai, eta azkeneko bat ere esan zuen, aurrekoak baino are ozenago, inguruko bozkario demasekoaren gaindi nabarmendu zena: eskerrik asko.

Arrautzopilari buelta ematen ari nintzaion une zehatzean entzun dut atearen hotsa eta Liaren ohiko sartualdi zalapartatsua: kaixo aita, gaur ere bai? Arrautzopila etxean egiten jarraitzen dudan bakarra omen naizela, bere adiskideen gurasoek eskatu egiten dutela, bost minutuan izaten dela etxean bero-bero. Gainontzeko janariarekin bezala, alegia. Uztan, momentu delikatua dun eta. Irribarre batekin, sukaldea utzi eta bere gelara egin du, ni bertan uzten nauela eskua platerari zartaginaren gainean presio egiten, eskua ez erretzeko eginahaletan. Gogoratu, gero ipuinarena egin behar dugu, e.

Zorutzen utzi zuen opariak, bete-betea asmatu nuela; erosi nahi zituenen zerrendan zuela esan zidan, Alaznek zeharretik begiratzen gintuen bitartean. Berak oparitutako jertseak ez zuen hainbesterako arrakastarik izan, milikeriarik gabe galdetu zion Liak, nerabearen espontaneotasunaz, ea aldatzerik zuen. Niretzako beste ale bat erosi nuela jakin zuenean, gainera, liburua irakurritakoan Perform! programan irudikatu –hitz hori erabili zuen– behar genuela esan zidan alegera.

Afaldu bitartean atera diot gaia, irakurritakoarekiko mesfidatiegi ez agertzeko saiatzen naizela. Literaturak irakurlea sinesbereegi bihurtzeko arriskua duela, hamarkada luzetan entzun izan ditugula arriskuari dei egiten dioten abisu sentsazionalistak, baina gero, gertatu, ez dela ezer apartekoa gertatu izan. Iritsiko zela gaixotasun hilgarri eta kutsagarri berri baten tenorea eta orduan etorriko zela munduaren ez ezik gizakiaren gainbehera; zenbatetan ez ote ditugu halakoak entzun! Eta nolakoak diren gauzak, zientzia fikzioarekin gertatu ohi den gisara, historiaren joanak erakutsi duela hipotesiaren hutsegitea; argitaratu zenean urrutitxo ikusiko zen 2020a, baina jada urte hura ondo pasata gaudelarik, oraindik balizko birus hilgarri eta kontrolaezinaren notiziarik gabe. Berehala moztu dit erretolika. Literatura literatura dela, ez besterik, eta gainera, berari osoro sinesgarria egiten zaiola halako zerbait gertatzeko aukera, noiz gertatuko den detaile hutsala baita; gizakiak ahalguztiduntzat ditugu geure buruak baina azken batean erabat zaugarriak gara, esan dit, eta onena Perform! horretan jolastea izango dugu, konturatzeko zientzia fikziozko errelato horrek kontatzen duena ez dela hain harrigarria: norbere larrutan bizi zer litzatekeen halako zerbait gertatuko balitz, eta ohartu, bide batez, ez litzatekeela hain sinestezina ere. Tortilla prestatzen dudan bakoitzean sentitzen dudan hori sentitu dut berriz ere, hau da, ez dutela merezi dudana bezala estimatzen platera prestatzeko nire esfortzua, eta hurrena hobe izango dudala nik ere teledelakora eskatzea. Isildu egin naiz haren esanei kontra egiteko kemenik gabe.

Afalostean bildu gara proiektorearen bueltan eta hasieratik-esplikatu-beharko-didazu-dena-ka hasi natzaio, ondo baitaki ni kontu hauetarako Aginako zero bat naizela. Esplikatzen ari zitzaidala etxeratu da Alazne, egunero bezala soslai nekatuarekin. Sukaldearen bazterrean afaria apartatu diodala jakinarazi diot. Ez duela goserik, zer edo zer pikatu duela lankideekin honerako bidean eta ea zertan ari ginen. Liak esplikatu dio

Perform! ditxosozkorako ari garela prestatzen, Pandemon ipuina irudikatu behar dugula bion artean; antzeztea bezalakoa dela, baina 3Dn, eta egiazki, irakurritako ipuina azal eta hezur bizitzen ariko bazina sentitzen duzula, kontakizuneko pertsonaietako bat bilakatzen zarela, eta haren sentimendu guztiak sentitzeko gai zarela, bere intentsitate osoan eta zuzenean.

Ea mugikorrak edo horiek antzinako gauza haiek ote diren, horixe galdetu dit kontuarekin hasi aurretik. Baietz, dispositibo hauen amonak direla, nolabait. Alazne, sukaldeko taburetean eserita bioi begira geratu delarik, berataz kupitu naiz, ezagun baitu, bere planta irmo eta serio hori gorabehera, gurera batu nahi duela. Sekula ez litzateke berez etorriko, ez dut alferrik 2026tik ezagutzen. Are gutxiago batuko litzateke nik esango banio etortzeko, beretzat ere badela lekurik. Momentu batez aldendu den unea aprobetxatu dut Lia kuraiatzeko berak gonbidatu dezala, bestela biongandik aparte geratuko dela (hori ez diot esan). Ama, zuk ere jolastu nahi duzu? Ez, lasai, ondo zaudete zuek. Begiradarekin aski izan dut jardun dezala adierazteko, jardun dezala. Bai, ama, ikusiko duzu, oso erraza da. Irriño batez hurbildu zaigu, dena-esplikatu-beharko-didazue-ka, eta berehala erantzun diot, lasai, ni ere halatsu nago.

Kontua da bakoitzak pertsonaia bat hautatu behar duela, baina berak dena du pentsatuta. Amak, Pandemon irakurri ez duenez, bukaerako koruaren –hitz hori erabili du– papera har dezake, oso erraza izango da. Txalo egin eta bibaka hastea, ez du beste zereginik izango. Aita, zuk egingo duzu protagonistarena, ezta? Hori bai ez nuela espero, oparia berari egina zenez, segurutzat nuen berari zegokiola paper hori. Burutik pasatu zait, arrapaladan, protagonistaren generoaren aitzakia erabiltzea, baina berehala baztertu dut: nire gurasoen komentario bat zirudikeen. Ilusioa egiten dit, esan dit zalantzati ikusi naularik. Ez gara orain hasiko urtetan goldatutako familia-posizioa desafiatzen, eta konforme, egingo dudala nik Maryrena, sekula ez naizen izan arren batere iaioa antzezte kontuetan. Barre egin du, ez naiz gauza ondo bereizteko satisfazioz edo burlaizez. Alaznerena ere ez da oso bestelakoa izan.

Hasierako urratsak ez zaizkit zailak egin: konfinamendu giroa, lanerako joan etorriak, bizilagunarekin hitz-aspertua: eroso sentitu naiz, pozik kasik, besteren larruan aritzearen

liberamenduaz-edo. Banoa autoa hartzera eta gurpil zulatuak, gero pintadak urde kutsagarria. Joan naiz lanerantz eta atarian bizilagunak, batak, bultza, bestea, heldu, Lia, heldu. Nahieran izan naiz arrebarenean, aspaldi ez bezala, munduaren ankerkeriaz libre, lanetik etxera, etxetik lanera. Gatazkak eta jipoiak gorabehera, plazera ematen du bizi honek, inondik ere. Liari egin diot so, Perform! honetan gero eta murgilduago, gero eta atsegin handiagoaz ari naizela ni izateari uzten. Aprobaziozko keinu batez adoretu nau aurrera egitera. Bitartean, Alazne oraindik kieto, zer egin ez dakiela, saltsa honetan parte hartzeaz damaturik ziur aski. Abiatu naiz etxerako bueltan eta hantxe ikusi dut bizilagun saldoa leihoetan, pankarta bipila zintzilik: "Ongi etorri, Alex!". Hasi da hitz egiten Lia, diskurtso borobila osatu du –bikain egin du hori ere–, hitzak hitzekin lotuz, bihoztu, halakoak sarri egitera ohiturik bailegoen. Alex, Alex bai dela heroietan heroiena, harrokeriarik gabe, isilka, umiltasun osoz bere lana egitera dedikatu dena; distirarik gabeko lana askoren ustez, lan ezkutua, lan gutxietsia, baina jakin dezala jende guztiak beragatik ez balitz ni ez nintzakeela hemen izango zuokin guztiokin, ez nuela zuen konpainia eder hau edukitzeko aukerarik izango. Eta bestela, esker txarreko gizarte honetan, beste inork omenaldirik egingo ez dizunez –niganantz biratu da berriro– har ezazu zure familiaren –gidoitik aldendu da baina jokoaren kontua izango da– omenaldi xume hau, gure asmo onenekin egingo eta esan dezagun ozen biba Alex, biba eta biba Alex. Maite zaitugu. Txalo zaparrada etorri da gero; Alazne, egongelako bazter batean luze ipinita, txalo eta txalo, eskuak zartatu beharrean, orain bai, orain erabat barneratua eta okasioarekin gozatzen. Biba Alex, biba! Besarkatu nau Liak estu, gidoiaren eskakizunei, orain bai, irmoki jarraituz, eta bera ere hasi da bibaka; biba Alex, biba aita. Biba. Eskerrik asko esatea zegokidala pentsatzen ari nintzela aurrez Liari besarkada itzuli behar diodala oroitu naiz eta, ez naizenez gidoitik aldentzera ausartzen, inoizko estutu handiena eman diot, Alazne, bere onetik kanpo ia, mahaira igo eta txaloaldi eta oihu are ozenagoarekin hasi denean. Bizilagunak zaragatik kexatuko ote diren errezeloarekin, azken ekitaldirako unea dela jabetuta, Liarengandik pixka bat aldenduz, keinu zinezko, keinu zintzo batez, ukabila bihotzera eraman dut eta, tap tap, tap, eskerrik asko esan dut, eskerrik asko benetan, Lia, Alazne; eskerrik asko. Ni ere ez nintzateke naizena zuek gabe.